



**UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA PUBLIKOA KOORDINATZEKO KONTSEILUAREN
TXOSTENA, EUNEIZ UNIBERTSITATEA XX/2020 LEGE PROIEKTUARI
BURUZKOA.**

AURREKARIAK

2018ko azaroaren 8an, EUNEIZ unibertsitatea pribatua ezagutzea eskatzeko idazkia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Unibertsitate Politika eta Koordinazioko Zuzendaritzara sartu zen, unibertsitate pribatuak libreki sortzeko abenduaren 21eko 6/2001 lege organikoak, Unibertsitateenak, 5.1. artikuluan eta otsailaren 25eko 3/2004 legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 108.1. artikuluan agertzen duten eskubideaz baliatuz.

2020ko urtarrilaren 9an, EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko proiektuari buruzko informazio zehatza, baita ordurarte egindako administrazio-tramiteak ere, helarazi zizkion Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari Hezkuntza Sailak.

Informazio hori aztertu ondoren, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak txosten bat eman zuen 2020ko urtarrilaren 31n. Txosten horretan EHuko errektoreak, EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko prozesua dela-eta, egindako alegazio eta oharra agertzen dira eta EUNEIZ unibertsitate pribatua tramitzeko espedientearen atala da.

2020ko otsailaren 6an eman zitzaion EUNEIZ unibertsitateari buruzko xx/2020 lege-proiektua tramitzeko prozesuari hasiera. Lege-proiektu hori tramitzeko prozesuari begira, lege-proiektu hori erredaktatzeko proposamenari buruzko txosten bat emateko eskaera egin zitzaion Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluari.

Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kide guztiei bidali zitzaion, 2020ko uztailaren 6an, proposamen hori eta kide horiei proposamenak egitea eskatu zitzaion.

2020ko uztailaren 16an idazki bat bidali zuen EHuko errektoreak eta, idazki horretan, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak, 2020ko urtarrilaren 31n emandako txostenean, EUNEIZ unibertsitate pribatua sortzeko proiektuari egin zizkion alegazio guztiak berresten ditu. Halaber, 2020ko uztailaren 16an, EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeari buruko alegazioak bidali zituen EHuko Administrazio eta Zerbitzueta Pertsonalaren ordezkariak.

**ONDORIOAK**

- EUNEIZ unibertsitate pribatua ezagutzeko prozesuari alegazioak egin zizkion EHuko errektoreak- Kontseilu honek 2020ko urtarrilaren 31n emandako txostenean jasota agertzen dira alegazio horiek- alegazio horiek berresten dituela jasota agertzeko eskatzen du.
- EHuko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkariak aurkeztu dituen alegazioak EUNEIZ unibertsitatea ezagutzeko prozesuari buruzkoak dira, eta ez dute lege-proiektuaren erredakzioarekin zerikusirik.
- EHuko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren ordezkariak bat egiten du EUNEIZ unibertsitatea ezagutzeko orain arte aurkeztu diren alegazioekin.
- Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluak ez dizkio alegazioak egiten EUNEIZ Unibertsitatea lege-proiektua erredaktatzeko prozesuari.

Eta dagozkion ondorioak izan ditzan

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 24a

Izpta: Miren Artaraz Miñón
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO
ZUZENDARIA
Euskadiko Unibertsitate Kontseiluko idazkaria